

# Ezpalak

JON TORNER

## Gasteizko 'Periscopio' jaialdiak 700 argazki erakutsiko ditu



FOTOKAZETARITZA ardatz duen Gasteizko Periscopio jaialdiak atek ireki ditu. Hiriko hamabi eraikin eta n paratutako era-

kusketek 728 argazki jaso dituzte orotara. Cesar Lucas espainiarraren irudiez osatutakoa da aurtengo erakusketa nagusia. Vital Kutxa Fundazioaren aretoan izango da ikusgai abenduaren 9ra bitartean. Gainerako erakusketak ere egun horretan itxiko dituzte. Periscopio.vitoria.com webgunean, hamabi erakusketen inguruko informazioa jaso dute.

## Blogariak.net sare sozial blogala sortu da

INTERNETEKO sare sozialak eta blogak uztartu ditu Blogariak.net "sare sozial blogalak". Elurnet Informatika Zerbitzuak enpresak sortutako webgunean albiste eta iritziak plazaratu ahal izango dira (edozein blogetan bezala), eta erabiltzaileek elkar ezagutzeko parada izango dute (hori da sare sozialen ezaugarria). Horrez gain, batak besteari erreferentziak egiteko aukera izango dute internautek.

## BAD: Dantza eta Antzerki garaikidea protagonista Bilbon

ANTZERKI ETA DANTZA Garaikidearen Bilboko BAD jaialdia hilaren 29tik azaroaren 7ra egingo da. Euskal Herriko eta atzerriko 24 konpainia hartuko ditu gutzira. Horietatik zortzik lanak estreinatuko dituzte. Ion Munduateren *Sin título, en colores*, Helena Gobalen *Black diamond* eta Khea Zia-ter taldearen *La canción de Gloria* ikuskizunak eskainiko dituzte, besteak beste.



**Txuma Murugarrenek** bakarkako seigarren diskoa kaleratu du: *B aldeko kantuek* (Gaztelupeko Hotsak). Natxo Beltran (bateria), Ekaitz Hernandez (baxua), Miguel Ramirez (gitarra), Rafa Rueda (gitarra) eta Rafa Aceves (teklatuak) musikariekin grabatu du diskoa.

**Mikel Rueda** zinemagile bilbotarraren *Izarren argia* aurreneko film luzea zinema aretoetara heldu da. 1938an, Mutrikuko Saturrarango hondartzan zeuden pare bat hotel eta apaizgaitegia espesxe bilakatu zituzten. Komunismoa desagerrarazteko aitzakian, 57 ume euren amengandik urrunarazi zituzten eta gerra irabazi zuten familiei eman. Preso egondako emakume horietako baten historia kontatzen du filmak. Barbara Goenaga da protagonista nagusia.

**Aizkorriko Ataria** Interpretazio Zentroa zabaldu dute Zegamako (Gipuzkoa) Anduetza baserrian, aspaldian ospitale izandakoan. Aizkorri-Aratz parke naturalaren sarrera eta erakusleihu izango den zentroak inguruneari buruzko informazioa emateaz gain, San Adriango tunela edota Aizkorri-rondoko ubidea ezagutzeko aukera eskainiko die bisitariei. Baserriko erraieran *Basoa Ezkuntuan* izeneko erakusketa kokatu dute, mundu osoko 1.200 ohol eta 173 enborrez osatua.



● **Jon Lamarka Gaztea irratiko zuzendariak Bizkaie! webgunean:** «Musikearen industria krisian dagoan honetan, deskargak, diskoak ez dirala erosten, kontzertuetara joateko jokerea apaldu egin dala eta beste koplak batzuk tarteko, inoiz baino musika gehiago entzuten da egun. Hor badago demanda bat telebistaren eta kontzertuak ikusteko... Dirua eukiko bageunke bere garaian pelota eta arraun erretransmisinoak pasau zan legez, musikeagaz egitea be interesgarria izango litzateke. Nik uste dot telebistako kontzertuek badaukiela indarra gaur egun be baina asmau beharko litzateke alde teknikoan zelan hobetu produktuak eta jentearengana zelan heldu.»



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)